

44E/2025 EBAZPENA, abuztuaren 25ekoa, Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren zuzendari kudeatzaileak emana, “Irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeentzako laguntzak 2025” deialdiaren lehen ordainketa onesten duena.

ERREFERENTZIA:	Espedientearen kodea: 0011-1407-2025-000000
UNIDADE KUDEATZAILEA:	Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskararako Departamentua Euskararen Sustapenaren eta Plangintzaren Zerbitzua Euskara Sustatzeko Atala Tfnoa.: 848 423224 Helbidea: Paulino Caballero 13, 31002 Iruña Posta elektronikoa: sustapena@navarra.es

ESPEDIENTEA	
Espediente mota:	Irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeendako laguntzak 2025ean euskara sustatzeko.

Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskararako Departamentuko kontseilariak apirilaren 23an emandako 47E/2025 Foru Aginduaren bidez, onetsi ziren irabazi-asmorik gabeko elkarteek euskara sustatzeko jardura eta programak egiteko laguntzen deialdia eta haren oinarriak.

Ondoren, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak uztailaren 14an emandako 32E/2025 ebazpenaren bidez dirulaguntzen deialdia ebatzi zen.

Bestalde, deialdia arautzen zuen apirilaren 23ko 47E/2025 Foru Aginduaren oinarrietan ezarria dagoen bezala, dirulaguntza bi epetan ordainduko da. Gainera, 32E/2025 ebazpenean adierazi zen lehenengo ordainketa partziala jasotzeko, borondatezkoa eta dirulaguntzaren % 50era artekoa, elkarte onuradunek aurkeztu behar zutela beharrezkoa den dokumentazioa, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta ondorengo 20 egun naturaleko epean.

Zerbitzu kudeatzaileak egiaztatu du diruz lagundutako jarduerak bete direla, dirulaguntza jasotzeko baldintzak betetzen direla, bai eta aurkeztutako agiriak baliagarriak direla ere.

Euskararen Sustapenaren eta Planifikazioaren Zerbitzuko zuzendariak aldeko txostena eman du behar den dokumentazioa eta gastuen frogagiriak aurkeztu dituzten 8 elkartei lehen ordainketa egiteko.

Hala, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32.1.d) eta 44. artikuluek eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen azaroaren 15eko 240/2023 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

1. Onuradun bakoitzari beheko taulan, lehen ordainketaren barnean, ageri diren zenbatekoak ordaintzea:



Esp. zenbakia	IFK	Izena	Diru partida	Zenbatekoa
0011-1407-2025-000010	G71472252	HAIZEGOA EUSKARA TALDEA	B30002-B3200-4819-334100	1.571,24
0011-1407-2025-000012	G31480783	ASOCIACION CULTURAL EUSKALDUN AXULAR DE BURLADA - AXULAR KULTUR ELKARTEA	B30002-B3200-4819-334100	4.167,25
0011-1407-2025-000013	G71280325	IDAZLEEKIN SOLASEAN ELKARTEA	B30002-B3200-4819-334100	1.368,65
0011-1407-2025-000015	F31098627	NAFARROAKO IKASTOLEN ELKARTEA SCI	B30002-B3200-4819-334100	17.906,90
0011-1407-2025-000022	G31513443	ASOCIACION GRUPO IRURTZUNGO AIZPEA	B30002-B3200-4819-334100	3.483,24
0011-1407-2025-000025	G31824675	FEDERACION TOPAGUNEA EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA	B30002-B3200-4819-334100	60.161,62
0011-1407-2025-000036	G71428536	ASOCIACION LABA	B30002-B3200-4819-334100	11.360,25
0011-1407-2025-000038	G31572654	KARRIKIRI ELKARTEA	B30002-B3200-4819-334100	28.383,10

2. Sahats Fundazioak ere lehenengo ordainketari dagokion justifikazioa aurkeztu zuen. Hala ere, aurkeztutako jarduerak ez dira lehenengo ordainketaren epeetan sartzen, hau da, jarduera horiek ez ziren 2024ko urriaren 1etik 2025eko martxoaren 31 bitarte egin (deialdiko 13.1 oinarria). Fundazioak justifikatutako jarduera guztiak martxoaren 31tik aurrera egin direnez, bigarren justifikazio-epean aztertuko dira.
3. Ebazpen hau jakinaraztea goiko zerrendako eskatzaile bakoitzari.
4. Ebazpen hau igortzea ondorengoei: Ekonomia eta Ogasun Departamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Departamentuan duen Kontu hartzailletza Delegatura, aipaturiko departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusira eta Ekonomia Kudeaketako Ataleko Zentro Kudeatzailera, Euskarabideko Euskara Sustatzeko Atalera eta Euskarabideako Langileriaren eta Azpiegituren Kudeaketa Administratiboaren Atalera, eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalera, behar diren ondorioak izan ditzan.
5. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta horren aurka gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskararako Departamentuko kontseilariari zuzendua, jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Iruñean, 2025eko abuztuaren 25ean.

EUSKARABIDEA - EUSKARAREN NAFAR INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA

Javier Arakama Urtiaga |

